

Esportazioak %-10,2 murriztu ziren 2008ko laugarren hiruhilekoan

Euskal esportazioen 2008ko balantzearen buruan %6,7ko hazkundera dugu

Euskal AEko **esportazioak** %-10,2ko jaitsiera nominala izan zuten 2008ko laugarren hiruhilekoan, Eustatek landutako datuen arabera. Atzerrian egindako salmentak 4.458,4 milioi eurora iritsi ziren 2008ko azken hiru hiletan, eta urtebete lehenago 4.967,0ra.

Guztizko **inportazioak** 3.995,6 milioi eurora iritsi ziren, urte arteko %-22,4 jaitsiera. Hala ere, produktu ez-energetikoen inportazioak gutxixeago jaitsi ziren, %-19,3 hain zuzen.

Merkataritza-saldoak (esportazioak ken inportazioak) bilakaera positiboa izan du, inportazioak gehiago murriztu baitira esportazioak baino; urtebete lehenagoko 179,7 milioi euroko saldo defizitariotik 462,9ko superabitera pasatu da, esportazioen inportazioen gaineko estaldura tasa %111,6 delarik.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. 2007-2008ko laugarren hiruhilekoa. Mila eurotan.

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urria-Abendua			Urria-Abendua		
	2007	2008	Δ %	2007	2008	Δ %
EUSKAL AE						
GUZTIRA	4.967.001	4.458.435	-10,2	5.146.692	3.995.582	-22,4
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	325.043	291.818	-10,2	1.587.171	1.122.068	-29,3
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	4.641.959	4.166.617	-10,2	3.559.521	2.873.513	-19,3
ARABA						
GUZTIRA	1.210.143	1.211.027	0,1	1.121.052	758.181	-32,4
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	2.204	2.619	18,8	14.110	14.679	4,0
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.207.939	1.208.408	0,0	1.106.941	743.502	-32,8
BIZKAIA						
GUZTIRA	2.105.698	1.665.934	-20,9	3.011.417	2.397.447	-20,4
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	315.161	281.770	-10,6	1.559.719	1.095.937	-29,7
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.790.537	1.384.164	-22,7	1.451.698	1.301.510	-10,3
GIPUZKOA						
GUZTIRA	1.651.160	1.581.475	-4,2	1.014.224	839.954	-17,2
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	7.677	7.429	-3,2	13.342	11.452	-14,2
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.643.482	1.574.045	-4,2	1.000.882	828.502	-17,2

Iturria: Eustat

Merkataritzako saldo ez-energetikoak 1.293,1 milioi euroko superabita izan zuen 2008ko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berean baino %19 gehiago; estaldura-tasa handitu egin zen: 2007ko laugarren hiruhilekoan %130,4koa zen eta 2008koan %145,0koa.

Europar Batasuna helburu duten esportazioak %-13,6 jaitsi ziren eta helburu nagusien artean Portugal (%3,5) bakarrik libratu da. Jaitsieren artean ondokoak nabarmendu behar: Erresuma Batua (%-44,6), Italia (%-17,8), Frantzia (%-7,6) eta Alemania (%-4,1). Bolumen garrantzitsua duten gainerakoen artean, positiboan Estatu Batuak (%33,8) eta Magrebeko estatuak (%98,1) ditugu; negatiboan Mexiko (%-39,3) eta Petrolio Esportatzaileen Erakundeko estatuak (%-25,7).

Europar Batasunetik etorritako inportazioak ere asko murriztu dira (%-30,7); Alemaniatik etorritakoak %-47,4, Frantziatik %-20,5 eta Italiatik %-25,2, besteren artean.

Europar Batasunarekiko superabita bikoiztu baino gehiago egin da; aurreko urtean 300,0 milioi eurokoa izan zen eta 2008ko azken hiruhilekoan 759,2; ondorioz, estaldura tasan ehuneko 27 puntu baino gehiago irabazi ziren.

2008ko laugarren hiruhilekoko esportazioen bilakaera, funtsean, bi **muga-zergaren** eragin negatiboaren mende dago: Garraio-materiala (%-28,3) eta Plastikoak eta kautxua (%-20,5); bien artean urtebete lehenagoko esportazio-kopurua 400 miliotan baino gehiagotan murrizten dute. Gainerakoen artean Metalen eta beren manufakturen igoera (%2,1) aipatu behar da, guztizko esportazioen herena.

Inportazioen artean sekzio gehienetan jaitsierak daude: Produktu energetikoak (%-29,3), Garraio materiala (%-51,7) eta Metalak eta beren manufakturak (%-17,9).

2008ko laugarren hiruhilekoan esportazioetan jaitsierarik handienak **Bizkaian** eta **Gipuzkoan** izan ziren; %-20,9ko eta %-4,2ko urte arteko tasak. **Arabako** esportazioek lehengoan diraute aurreko urtearen aldean. Ordea, **Arabian** (%-32,4) murriztu ziren gehien inportazioak; ondoren **Bizkaian** (%-20,4) eta **Gipuzkoan** (%-17,2).

2008. urteko balantzea

Euskal AEko esportazioak 19.888,4 milioi eurora iritsi ziren 2008. urtean, aurreko urtean baino **%6,7** gehiago. Aldi berean, guztizko **inportazioak %7,1** gehitu ziren, eta produktu ez-energetikoenak %-0,8 jaitsi. Bi fluxuen ondorioz, esportazioen inportazioen gaineko estaldura-tasak 2007ko mailetan (%99) iraun du, 2008. urterako 214 milioi euroko defizit arina sortu delarik.

Produktu ez-energetikoen saldoa 5.100,5 milioi izan zen, 2007an 4.058,1 izan zelarik. Produktu ez-energetikoen estaldura-tasa zortzi puntuz igo da, 2007ko %131,0tik 2008ko %139,2ra.


Euskal AEko esportazioen hazkundera Estatukoa (%3,7) halako bi da ia; halere, euskal inportazioen hazkundera estatukoaren (%0,6) aldean areagokoa da.

2008. urtean esportazioek honako esparruetan izan zituzten gehikuntzarik handienak: *Metalak eta beren manufakturak* (%16,7), *Material elektrikoa* (%9,4) eta *Mea-produktuak* (%21,3). Eta jaitsierarik garrantzitsuenak: *Garraio materiala* (%-5,4) eta *Plastikoak eta kautxua* (%-3,6).

2008. urte osoan Gipuzkoan izan zen esportazioen gehikuntzarik handiena, %8,0; Araban ondoren, %7,0 eta Bizkaian, %5,5. Inportazioen aldetik Bizkaia bakarrik du hazkundera, %13,4; Gipuzkoan eta Araban antzeko jaitsierak, %-2,6 eta %-2,4.

Euskal AEko kanpo-merkataritza. (Joera)

EUROAK miloikotan



Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido

+Tlf: +34-945-01 75 13 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp